

Eusko Jaurlaritzaren eta SPRIren doako aholkularitza zerbitzua, autonomoek eta mikroETEEK Teknologia Berriak erabil ditzaten helburu duena, zerbitzu baliotsu bat bezala finkatzen ari da eta baditu dagoeneko 1.600dik gora mikroenpresa parte-hartzaile

Eusko Jaurlaritzak bultzatzen du “Euskadiko autonomo eta mikroETEentzako IKT Konponbideen Inplantari” programa Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko SPRI-Enpresen Garapenerako Agentziaren bitartez. EAeko 1.600dik gora negozio txikik parte hartu dute programan, Informazio eta Komunikazio Teknologiak beren negozioetan txertatzeko eta, bide horretatik, lehiakorrigo izateko.

Ekimen honi esker “Inplantari” baten doako aholkularitza teknologikoa jaso duten negozioek (edozein jarduera sektoretako autonomoek eta 10 langile baino gutxiago dituzten mikroETEEK) probetxua atera diete IKTei. Hala, programako parte-hartzaileek kudeaketa tresnak erabiltzen eta negozioan txertatzen ikasi dute produktu eta zerbitzuak sustatzeko eta bezero gehiago lortzeko, denbora eta kostuak aurreztu dituzte eguneroko tramiteetan beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihestuz, negozioaren irudia eta bezeroarekiko harremana hobetu dute eta kudeaketa eraginkorragoa lortu dute zerbitzua arinduz.

Orain arte 14.000tik gora konponbide ezarri dira, batez beste 9 negozio bakoitzeko; 1.400dik gora negoziok beren profil profesionalak dinamizatu dituzte sare sozialetan eta 500 baino gehiagok web atari bat sortu dute edo lehendik zutena hobetu dute.

Hain zuzen ere, negozio gehienek -%75ak- ekimen honetan parte hartzen dute negozioa Interneten sustatzeko, %70ak bezeroak leialtzeko eta %69k negozioa modernizatzeko eta denbora eta kostuak aurrezteko.

Zerbitzua pertsonalizatua izatea da parte-hartzaileek ongien baloratzen duten alderdia; izan ere, aholkulari teknologiko neutral bat negoziara joaten da eta beren premiei ongien egokituriko tresnak instalatzen eta erabiltzen laguntzen die. Gainera, zerbitzua doakoa da.

Negozio bakoitzak bere premiei ongien egokituriko zerbitzua eskatu dezake ekimenak eskaintzen dituen bi zerbitzuen artean: aholkularitza indibiduala edo kolektibo murriztuentzako aholkularitza.

Taldekako ezarpenaren edo ezarpen kolektiboaren bidez IKT konponbide multzo bat ezartzen da negozio talde oso txiki batean, baldin eta interes eta premia teknologiko berberak badituzte. Modalitate honen indarguneak dira taldean lan egin ahal izatea eta esperientziak partekatzea denen profil eta helburuei egokitutako edukiekin. Oraingoz 2/3 orduko 95 lan saio egin dira, besteak beste, Getxo, Bermeo,

Etxebarri, Eibar, Tolosa, Ermua, Zarautz eta Erreterian eta hiru euskal hiriburuetan.

www.euskadinnova.net ekimenaren webean dago “**Inplantari**” programari edo **mikroenpresentzako IKT Konponbideak** erabiltzeko aholkularitza zerbitzuari buruzko informazioa. Gainera, *IKT Konponbideen Katalogoaren* azken bertsioa eskuratu daiteke eta zerbitzu eskaera egiteko bete behar den izen-emate inprimakia ere bai.

Web horretan argitaratzen da baita ere mikroenpresentzat bereziki programatutako IKTen erabilpenerako prestakuntza **ikastaroen agenda**.

Laguntzarako wikia ere badago, parte-hartzaileak bakarrik egon ez daitezten. Onlineko zerbitzu bat dute kontsultarako eta zalantzak argitzeko E-kontsulta orrian (www.ekontsulta.net), info@spri.es helbidean edo telefonoz 902 702 142 zenbakian.

Lortutako onurak

Mapa birtualak, QR kodeak, sare sozialak, bezeroei mailing edo sms mezuak bidaltzeko sistemak, onlineko publizitatea, dokumentuak partekatzeko Interneteko espazioak, txanden kudeaketa, kudeaketa integratudun TPV, eta abar. Asko dira negozio batean txertatu eta erabil daitezkeen konponbideak eta onura ukigarriak sortzen dituzte mikroETEentzat: parte-hartzaileen %70ak marka irudia hobetu du eta %50ak bezero gehiago lortu ditu. Kasuen %42an bezero horiek webeko posizionamendu eta sustapen kanal berrietatik datoz, eta hala, bitik batek balizko bezeroen bisita gehiago jaso dituela esan liteke. Parte-hartzaileen %30aren iritziz, ahaleginak merezi izan du, bezeroak zerbitzuarekin gusturago daudelako, eta hala, gehiago saldu dutelako.

Eraitza horiek oso positiboak dira eta kontraesankorrak aldi berean Telefónica Fundazioaren “Informazio Gizartea 2012 Txostenak” bildutako datuekin. Azterlan horrek dio 10 langile baino gutxiago dituzten enpresen %61,2k bakarrik daukala Internet konexioa, eta %25,5ak bakarrik daukala webgune propioa. Dena den, egileek ohartarazi dute azken adierazle hori nabarmen hazi dela azken urtean. Aipatzekoa da inplantariaren bisita jaso duten 852 negozioetatik erdiak web orri bat egiteari edo zutena hobetzeari buruzko aholkularitza jaso dutela edo web orria ezarri zaiela.

Eusko Jaurlaritzak eta SPRIk beren konpromisoari eutsiz, negozio txikien lehiakortasuna hobetu nahi dute IKTen bidez, eta horregatik, zabalik dago ekimen honetan parte hartzeko epea. Informazio gehiago lortzeko eta izena emateko, zoaz Euskadi+Innova web orrira: www.euskadinnova.net